

# 2019ko gizarte-txostena

## Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkarte

Hamaikagarren urtez, **Gizatea**ko bazkide diren enpresen Gizarte-Txostena aurkezten dugu, 2019an izan zuten jarduerari buruzko datu pilatuak emanez. Bertan, 2019an bazkide ziren enpresa guztien informazioa biltzen da, 43 hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 44 enpresa erregistraturik egon arren. Txostenean, enpresei buruz eskainitako informazioa, enpresa-jarduerari eta jarduera ekonomikoari dago- kio, baina baita euren xede sozialari ere: lan merkatu- ra sartzeko zailtasun bereziak dituzten eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsona langabeei emandako laguntza eta gizartratze eta laneratzea, alegia.

2019ko gizarte-txostena



# Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea





2019ko Gizarte-Txostena  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

2020ko uztaila

### Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Venezuela plaza 1, 2. solairua, Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo

Tel.: 94 401 09 59

[gizatea@gizatea.net](mailto:gizatea@gizatea.net)

[www.gizatea.net](http://www.gizatea.net)

Twitter: @Gizatea

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Amayadigital, S.L.U.

Koordinazioa, analisia eta idazketa: Joana Revilla eta Leire Álvarez de Eulate.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiaitzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>

# Aurkibidea



5 Aurkezpena

7 Nortzuk gara

9 Informazio soziala

16 Informazio ekonomikoa

21 Itzulkin ekonomikoa

24 Erreserbatutako kontratuak

27 2019an, **Gizateari** lotutako laneratze-enpresen zerrenda



## Aurkezpena

Hamaikagarren urtez jarraian, **Gizateako** bazkide diren enpresen Gizarte-Txostena aurkezten dugu.

Gizarte-Txostena helburua da gizarteari eta erakunde publikoei nahiz pribatuei laneratze- enpresek egiten duten lan bikoitza -enpresakoa eta soziala- komunikatzea.

Gizarte Txostena erakunde bakoitzaren balantze sozialean oinarritzen da, eta hemen 2019ko ekitaldiaren emaitza aipagarrienak aurkeztuko dira.

2018an baino hiru enpresa gehiago daude (43; lehen, 40 zeuden), eta aurten ere, sendotu egin da aurreko hiru ekitaldien bilakaera positiboa enpresen adierazle ekonomiko eta sozial nagusietan, eta jarraian horietako batzuk laburbilduko ditugu:

- Laneratzeko lanpostuen hazkundera 2019an indartu zen, **2018aren aldean %17ko hazkundera izaki.**
- **Sektoreak sortutako enpleguak** ere gora egin dute 2019an, batez ere bazterketa-egoera edo -arriskuan dauden pertsonena: elkartutako laneratzeko enpresek 2019an **1.368 pertsona** enplegatu zituzten, eta horietatik **836 laneratzeko prozesuan**, horrela, 2019a izan da laneratzeko prozesuan dauden pertsona gehien enplegatu diren urtea.
- 2019an, laneratzeko Euskadiko enpresetan ibilbidea amaitu duten pertsonak **ohiko enplegura sartzeko tasa** egonkorra izan zen: ibilbidea amaitu **zuten laneratzeko enplegatuen %63 ohiko lan-merkatuan sartu da.**
- **Salmentak dira Gizateari elkartutako laneratzeko enpresen diru-sarreraren iturri nagusia:** 2019ko datuen arabera, diru-sarrerak, guztira, 32.166.302,25 € izan dira, eta, horien %72 produktu eta salmenten fakturaziotik etorrira. Azpimarratu nahi genuke, salmenta guztien **%77 bezero pribatuak direla eta %23 sektore publikoa.** Hemen nabarmendu nahi dugu, nahiz eta datu horiek erakusten duten laneratze-enpresek batez ere merkatu pribatuan jarduten dutela, administrazio publikoen kontratazioak %6ko hazkundera izan duela, eta horren adierazgarri da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 4. xedapen gehigarria,

administrazio publikoak laneratze-enpresei lizitazio jakin batzuetan parte hartzeko erreserba-ehuneko bat ezartzera behartzen dituen. Hala ere, **Gizateatik** lanean jarraituko dugu erreserba hori handitzen jarrai dezan eta sektorearen eta laneratze lanpostuen hazkundeari alde egin diezaion, administrazioari kostu gehigarrikerik eragin gabe.

- Diru-laguntzei dagokienez, diru-sarrera guztien %24 dira, eta horien %89 laneratze lanpostuaren laguntza espezifikoak dira.

Erakutsi bezala, datuek adierazle ekonomiko eta sozial aipagarrietan joera positiboa izan arren, **Gizateako** enpresek harago egiteko asmoa dute, eta euren enpresetan laneratze lanpostuaren egingo duten pertsona gehiago izan nahi dituzte, eta, halaber, kalitatezko laneraterako ildoak sortuz.

Horretarako, 2019an hainbat eragilerekin lan egin dugu: erakunde publikoekin, enpresek, sareekin eta unibertsitateekin, pertsona guztientzako enplegu inklusiborako aukerak sortzera bideratutako proiektu eta ekimen ugaitan, eta, azken batean, gizarte kohesionatuago, bidezkoago eta solidarioago batean.

**Gizateatik** gure kausarekin bat egitera animatzen zaitugu.

## Nortzuk gara

**Gizatea** eta gizarteratze-arloan dituen enpresez ari garenean, honetaz ari gara:


<b>Parte-hartzea</b>	<b>2019</b>
Gizateako bazkide diren enpresak.	43
Gizarte-txostenean parte hartu duten enpresa kopurua.	43 (%100)

<b>Datu soziolaboralak</b>	<b>2019</b>
Langile kopurua -laneratze eta gizarteratze prozesuan eta prozesutik at-.	1.368
Laneratze langileak.	836
Lansaiosoko laneratze lanpostuak.	523
Ibilbidea amaitzean, lan-merkatuan sartzen diren pertsonen ehunekoa.	%63


<b>Datu ekonomikoak (€)</b>	<b>2019</b>
Sarrerak, guztira.	32.166.302,25 €
Fakturazioa, guztira.	23.043.072,93 €
Ustiapen diru-sarreretatik, diru-laguntza publikoen ehunekoa.	%24
Langileen kostuak.	19.094.589,52 €
Sortutako Balio Erantsi Gordina.	20.236.140,19 €

<b>Administrazio publikoei itzulkin ekonomikoa (€)</b>	<b>2019</b>
Estimación total del retorno en concepto de seguridad social, IVA, IS, IRPF y otros tributos.	4.694.314,50 €
Herri administrazioei itzultakoa, gizarte segurantzaren BEZ, SZ, PFEZ eta bestelakoen bitartez, laneratze lanpostu bakoitzeko.	8.970,43 €

## Banaketa geografikoa




## Forma juridikoa



- %84** Sozietate Mugatua
- %12** Kooperatiba Sozietatea
- %2** Lan Sozietatea
- %2** Sozietate Anonimoa

## Esparru geografikoa




- %21** Tokikoa
- %53** Probintziala
- %19** Autonomikoa
- %7** Estatu mailakoa

## Informazio soziala


Gizarteratze-arloko enpresak ekimen sozioekonomikoak dira, enpresa-jarduera zehatz baten bidez gizarteratzeko bektore bilakatzen dute enplegua, eta gizartean parte hartzeko modu bat dira gizartean baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat.

Langileak 2019		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Emakumeak	Laneratze prozesukoak	454	91	267	96
	Laneratze prozesutik kanpokoak	288	47	190	51
Gizonak	Laneratze prozesukoak	382	42	285	55
	Laneratze prozesutik kanpokoak	244	18	202	24
<b>Guztira</b>		<b>1.368</b>	<b>198</b>	<b>944</b>	<b>226</b>


## Langileen bilakaera



## Pertsonak sexuaren arabera




742 (%54) — Emakumeak  
626 (%46) — Gizonak




742 emakume, horietatik  
454 laneratze-langileak (%61)

## Gizarteratze-prozesuan dauden eta DSBE jasotzen duten pertsonak



607 pertsonak jaso zuten Diru-sarreraren Bermerako Errenta, gizarteratzeko prozesuarekin hasi aurretik (%73)

## Laneratze prozesuan dauden langileen lanaldia (%)



## Lanpostuen egitura<sup>1</sup>

Laneratze enpresa	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Laneratze langileak	262	261	523
Zuzendaritza / Gerentzia	10	11	21
Laguntzeko langile teknikoak	11	26	37
Ekoizpeneko langile teknikoak	78	63	141
Beste funtzio batzuk	33	31	64
<b>Total</b>	<b>394</b>	<b>392</b>	<b>786</b>

■ **786** lanpostu

■ **523** laneratze lanpostu


<sup>1</sup> Gizarteratze-arloko postua eta pertsona bereizten ditugu: gizarteratzeko postuak edo plazak urteko lanaldi osoa dakar berekin; gizarteratze-arloko pertsona, berriz, lanaldi osoko postu batean aritu daiteke, edo arduraldi partziala izan, bestela.

## Erakunde sustatzaileak kontratatutako langileak

Erakunde sustatzailea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaritza / Gerentzia	12	6	18
Laguntzeko langile teknikoak	15	18	33
Ekoizpeneko langile teknikoak	7	3	10
Beste funtzio batzuk	1	6	7
<b>Guztira</b>	<b>35</b>	<b>33</b>	<b>68</b>


■ Gizarteratzeari laguntzarako  
**70** lanpostu tekniko

## Lanpostuen bilakaera



● Laneratze prozesuko lanpostuak  
 ● Laneratze prozesutik kanpoko lanpostuak  
 ● Guztira

## Laneratze langileen kontratu motak



■ Egindako kontratuen **%99** (830),  
44/2007 Legean aurreikusitako  
kontratu espezifikoan<sup>2</sup>

## Laneratze langileen egoera

Laneratze prozesuan  
dauden pertsonen  
buruzko hainbat datu


	2015		2016		2017		2018		2019	
	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%
Laneratze prozesuarekin jarraitu zutenak	440	69	481	72	498	71	528	68	554	66
Amaitu aurretik, laneratze prozesua bertan behera utzi zutenak	15	2	22	3	20	3	31	4	39	5
Laneratze kontratua amaitu zutenak	57	9	40	6	61	9	60	8	74	9
Laneratze prozesua amaitu zutenak	124	19	122	18	123	17	158	20	169	20
<b>Guztira</b>	<b>636</b>	<b>100</b>	<b>665</b>	<b>100</b>	<b>702</b>	<b>100</b>	<b>777</b>	<b>100</b>	<b>836</b>	<b>100</b>

<sup>2</sup> Gizarte-bazterketa egoeran dauden langileak laneratze-enpresetan lan egin dezaten sustatzeko aldi baterako kontratua, laneratze-enpresen erregimena arautzeari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legeko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## Laneratzea


	2015		2016		2017		2018		2019	
	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%
Merkatuan, besteren kontura	60	48	53	43	70	57	78	49	82	49
Merkatuan, bere kontura	5	4	6	5	6	5	1	1	7	4
Laneratze enpresan	3	2	16	13	9	7	25	16	17	10
Langabezian	56	45	47	39	38	31	54	34	63	37
<b>Guztira</b>	<b>124</b>	<b>100</b>	<b>122</b>	<b>100</b>	<b>123</b>	<b>100</b>	<b>158</b>	<b>100</b>	<b>169</b>	<b>100</b>

## Laneratzea prozesua bukatzerakoan




■ Laneratze-prozesua amaitu dutenetatik  
**63%** lan merkatuan sartu dira

## Laneratzearen bilakaera



## Enplegu motaren bilakaera



## Informazio ekonomikoa


Lan-munduan txertatzeko enpresek jarduera ekonomikoa sortzen dute gure erkidegoan, pertsonekin eta ingurunearekin konpromisoa hartuta, eta ondasunak eta zerbitzuak kontratatzean eta erostean irizpide etikoak, arduratsuak eta solidarioak sustatuta.

### Jarduera ekonomikoak (fakturazio %)


Jarduera ekonomikoa	Enpresa kop. (jarduera nagusia)	Fakturazio osoaren %
Ostalaritza eta kateringa	8	28,01
Hondakin bilketa, trataera eta birziklapena	2	25,23
Arroparen, jostailuen, altzarien eta 2. eskuko gauzen bilketa/merkataritza	6	9,83
Garbiketa	3	6,45
Industria-zerbitzu osagarriak	4	6,27
Etxez-etxeko laguntza / Menpekotasuna	3	5,10
Eraikuntza eta berrikuntzak	3	3,15
Aisialdi jarduerak	1	3,08
Zurezko lanak / Altzarigintza eta altzari-zaharberritzea	1	2,80
Elikagaiak eta produktu ekologikoak / produktu Premium	3	1,75
Ehungintza, jantzigintza eta joskintza	1	1,70
Mezularitza, garraioa eta paketeria	1	1,41
Mekanika	1	1,40
Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	2	1,18
Baso- eta nekazaritza-lanak	1	1,02
Artisau-lanen merkataritza	1	1,00
Garraio Iraunkorra	1	0,33
Garbitze- eta tindatze-lanak	1	0,31

■ 43 laneratze-enpresa, guztira


## Jarduera sektoreak




## Diru-sarrera iturrien bilakaera (milioi €)



## Diru-sarrera iturriak




## Bezero-zorroatik



%77 Sektore pribatua  
%23 Sektore publikoa

## Diru-laguntza motak



%89 GLE-entzako diru-laguntza publikoak  
%8 Diru-laguntza pribatuak  
%3 Beste diru-laguntza publiko batzuk


## Diru-laguntza moten bilakaera<sup>3</sup> (€)


Diru-laguntzak	2015	2016	2017	2018	2019
Laneratze enplegua	4.991.660,45	4.639.908,42	5.485.985,68	5.419.178,24	6.144.185,37
ekoizpen teknikariak	368.167,00	420.334,20	633.648,61	786.330,25	779.947,38
laguntza teknikariak	298.329,05	354.362,55	466.405,75	478.326,72	480.695,72
Inbertsioak	162.715,74	149.208,30	37.768,52	16.546,21	6.245,21
laguntza teknikoak	0,00	802,86	0,00	4.778,53	0,00
Beste kontzeptu batzuk	29.490,04	50.447,92	52.293,48	176.373,70	191.084,53
<b>GLEi emandako laguntzak, guztira</b>	<b>5.850.362,28</b>	<b>5.615.064,25</b>	<b>6.676.102,04</b>	<b>6.881.533,65</b>	<b>7.602.158,21</b>
Bestelako diru-laguntza publikoak	918.548,70	618.111,47	643.145,19	702.962,96	295.777,33
Diru-laguntza pribatuak	188.026,34	781.949,27	791.434,21	887.109,36	690.925,15
<b>Diru-laguntzak, guztira</b>	<b>6.956.937,32</b>	<b>7.015.124,99</b>	<b>8.110.681,44</b>	<b>8.471.605,97</b>	<b>8.588.860,69</b>

<sup>3</sup> Laneratzeko enpresei urtero emandako laguntza espezifikoek hainbat urtetarako izaera dutenez gero, hemen eskaintzen diren datuak 2019 ariketarako enpresek egotzitako zenbatekoak, eta beraz urte desberdinetan emandako laguntzak izan litezke.

## Azterketa ekonomikoa (€)

Emaizten kontua	2015	2016	2017	2018	2019
Ustiapeneko sarrerak	28.082.086,51	29.808.770,71	30.479.399,59	31.330.382,88	32.166.302,25
Lehengaien eta salgaien kontsumoa	-5.637.151,48	-4.953.141,22	-5.479.271,40	-4.616.349,04	-3.960.833,57
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-6.524.343,73	-7.527.781,82	-6.763.006,94	-8.361.537,95	-7.979.134,59
<b>Balio Erantsi Gordina</b>	<b>15.920.591,30</b>	<b>17.327.847,67</b>	<b>18.237.121,25</b>	<b>18.352.495,89</b>	<b>20.226.334,09</b>
Ezohiko emaitzak	30.106,22	57.438,83	- 1.869,86	89.420,51	9.806,10
<b>Sortutako Balio Erantsi Gordina</b>	<b>15.950.697,52</b>	<b>17.385.286,50</b>	<b>18.235.251,39</b>	<b>18.441.916,40</b>	<b>20.236.140,19</b>
<b>Bestelako adierazle ekonomikoak</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>
<b>Sortutako Balio Erantsi Gordina</b>	<b>15.950.697,52</b>	<b>17.385.286,50</b>	<b>18.235.251,39</b>	<b>18.441.916,40</b>	<b>20.236.140,19</b>
Pertsonal gastuak	-14.557.091,59	-15.392.750,09	-16.178.844,29	-17.054.893,79	-19.094.589,52
Finantza emaitzak	-136.764,39	-134.249,48	-174.495,20	-144.620,49	-150.900,27
Amortizazioak	-1.202.459,96	-1.176.994,59	-1.059.543,63	-935.085,02	-857.739,21
<b>Zerga Aurreko Mozkina (ZAM)</b>	<b>54.381,58</b>	<b>681.292,34</b>	<b>822.368,27</b>	<b>307.317,10</b>	<b>132.911,19</b>
Amortizazioak	-1.202.459,96	-1.176.994,59	-1.059.543,63	-935.085,02	-857.739,21
<b>Kutxa Fluxua edo Cash Flow</b>	<b>1.256.841,54</b>	<b>1.858.286,93</b>	<b>1.881.911,90</b>	<b>1.242.402,12</b>	<b>990.650,40</b>


 **20.236.140,19 €** ko BEG

 **32.166.302,25 €**-ko sarrerak

## Itzulkin ekonomikoa

Gizarteratze eta laneratze enpresek komunitateari egiten dioten oinarrizko ekarpena bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea da. Horretarako, laguntza publiko bereziak jasotzen dituzte. Inbertsio publiko honek, gizarteari itzulkin bat sorrarazten dio, bai ekonomikoki zein justizia eta kohesi sozialari dagokionez.

### Zerga bidez administrazio publikoei egindako itzulkina (€)




## GLEen ekarpena, laneratze prozesuan dauden pertsonak kontratatzeagatik<sup>4</sup>

	Zenbatekoa laneratze lanpostuko/urte (€)	Laneratze lanpostu kopurua	AAPPei egindako diru-sarrerak (€)
Enpresaren Gizarte Segurantza	4.928,65	523	2.579.213,92
Langilearen Gizarte Segurantza	1.120,83		586.540,50
PFEZ	1.095,78		573.435,17
BEZ	1.609,21		842.113,30
Sozietateen g/zerga	103,52		54.175,15
Bestelako zergak	112,43		58.836,47
<b>Guztira</b>	<b>8.970,43</b>		

■ Laneratze lanpostu baten itzulkina **8.970,43 €**

## Laneratze lanpostuaren benetako kostua (€)



■ Laneratze lanpostu baten koste erreala **5.556,64 €**

<sup>4</sup> Kalkulia egiteko, urtean, 17.057,13 € gordin kobratzen dituen laneratze prozesuko langile baten soldata hartu da oinarri.

<sup>5</sup> Urteko diru-laguntza erabateko zenbatekoa laneratzeko lanpostu erabeteko zenbatearekiko.


## DBE jasotzen duen pertsona baten kostua<sup>6</sup> (€)

---



## Aurrezkoa administrazioarentzat (€)

---



**7.570,17 €**-ko aurrezkoa  
laneratze lanpostu bakoitzeko

---

6 Kalkulu honetan, honako faktore hauek hartu dira kontuan:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentan (DSBE) "ez pentsiodunek" jasotzen duten batez besteko kostua Euskadin, gurasobakartasunari eta etxebizitzari dagokien osagarria barne. Iturria: Lanbide (Kabinete Teknikoaren Analisi, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua). 2019ko maiatza.
2. Beste laguntza batzuetatik urtean jasotako zenbatekoa, hainbat azterlanetatik aterata.

## Enplegu inklusiboa sortzeko erreserbatutako kontratuak

Gaur egun, enpleguak etorkizunean izango duen funtzioari buruzko eztabaida badago ere, laburturik esanda, enpleguak gizarteratzea beti bermatzen ez duen arren (gero eta pertsona gehiago daude prekaritate-egoeran, eta enplegua lortzea gero eta urrunago dago unibertsala izatetik), enplegu duina oraindik ere tresna ona da estrategia inklusibo baterako, eta funtsezko zeregina du gizarte-kohesio prozesuetan.

Hala ere, eta kontratu publikoetan klausula sozialak txertatzearen aldeko legeria gero eta handiagoa izan arren, mekanismo horren bidez gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat sektore publikoak sortutako enplegu-aukerak oraindik ez dira nahikoak.

Ondasunen edo zerbitzuen kontratazio publikoak garrantzi handia du ekonomian, eta, horretarako, administrazio publiko guztiek BPGd-aren %15 inguru erabiltzen dute; beraz, erakunde publiko batek kontratu bat esleitzen duen bakoitzean, eragin handia izaten du merkatuan eta ingurunean.

Kontratuen egungo legeriak berariaz eta zalantzarik gabe onartu du kontratazio publikoak helburu sozialak lortzeko erabiltzeko aukera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, 4. xedapen gehigarrian, erreserbatutako kontratuei buruz dihardu, eta edozein administrazio publikori aukera ematen dio lizitazio batean "parte-hartzea erreserbatzeko", soil-soilik laneratze-enpresei eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei. Hau da, tipologia horietako enpresak baino ezin dira aurkeztu eta onartu, haien ezaugarri bereziak, izaera arautua eta onura sozial frogatua eta ukaezina aitortuz. 4. xedapen gehigarria harago doa, eta administrazio publikoak erreserbako gutxieneko ehunekoak finkatzera behartzen ditu.

9/2017 Legeak bi enpresa mota horiei kontratu-loteak erreserbatzea ere ahalbidetzen du. Berrikuntza hori oso interesgarria da, eta aukera ugari ematen ditu erreserbatutako kontratuen aplikazio praktikoan.

Hasieran adierazi den bezala, oraindik bide luzea dago egiteko administrazio publikoek gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat enplegu inklusiboa sortzeko potentzial osoa heda dezaten, baina 9/2017 Legea 2018ko martxoan indarrean sartu zenetik, maila guztietako euskal administrazio publikoek urrats garrantzitsuak egin dituzte 4. xedapen gehigarria betetzeko eta enpresentzat gordetako kontratuak garatzeko. Hona hemen horietako batzuk:

- **Eusko Jaurларitzak**, 2018ko martxoaren 13an, %5eko erreserba-ehunekoa onartu zuen laneratze-enpresentzat eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat. Euskal sektore publikoko kontratazio-organo bakoitzak SPKLren VI. eranskinean jasotako kategoria ekonomikoetako lizitaziorako oinarritzko zenbatekoen %5, gutxienez, izapi-

detu behar du erreserbatutako kontratu gisa; besteak beste, honako zerbitzu hauek: garbiketa, garraioa, baso-lanak, ostalaritza, inprenta, biltegiatzea, administrazio-lanak, kudeaketa eta lan osagarriak, posta eta publizitatea, mantentze eta konponketa, etab.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiak**, 2018ko maiatzaren 15ean, %4ko erreserba-hunekoa onartu zuen laneratze-enpresentzat eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat, eta edozein kontratu-xede, jarduera-sektore eta esleipen-prozedura erreserba daiteke.
- **Bilboko Udalak** Kontratazio Publiko Arduratsuaren Jarraibidea onartu zuen 2019ko irailaren 25ean, eta 600.000 €-ko urteko gastu-konpromisoa hartu zuen, laneratze-enpresentzat eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat gordetako kontratuen bidez.
- **Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udal-ek** (Beterri-Buruntza eskualdea, Gipuzkoa) lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten 2020ko urtarrilean, gizarteratze-enpresentzat gordetako kontratuen bidez zerbitzu jakin batzuk elkarrekin kontratatzeko.


Administrazio horiez gain, beste batzuek ere aplikatu dituzte 9/2017 Legea indarrean jarri zenetik erreserbatutako kontratuak, eta horien esleipendun izan dira laneratze-enpresak, horretarako erreserbako akordio edo ehunekorik ezarri duten edo ez alde batera utzita. Horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

Andoaingo Udala
Arrasateko Udala
Basauriko Udala
Donostiako Udala
Santurtziko Udala
Gasteizko Udala
Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Debagoieneko Mankomunitatea
Nerbioi Ibaizabal Mankomunitatea - Udaltalde 21
San Markos Mankomunitatea
Alokabide
VIESA – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.

Administrazio eta erakunde publiko horiek egindako kontratu erreserbatuek eta **Gizatea**-ri lotutako laneratze-enpresen onuradun izan direnek gorakada nabarmena

izan dute Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea indarrean sartu zenetik. Erreserbatutako kontratuetatik eratorritako urteko fakturazioari dagokionez, 2018an %86,39 igo zen 2017arekin alderatuta, eta 2019an %43,22, 2018arekin alderatuta. 2020rako aurreikuspenen arabera, igoera gutxienez %96,5ekoa izango da, 2019ko datuekin alderatuta.

## Euskadin GLeri erreserbatutako kontratuen bidez lizitatutako urteko fakturazio-bolumenaren bilakaera (2017-2020)\*



\* Lizitazioen datuak, 2020ko uztailaren 17ra arte.

\*\* 2020ko uztailaren 17ra arte lizitatutako kontratu erreserbatuetan oinarrituta aurreikusitako zenbatekoa.

Datu horiek erakusten digute oraindik ere bide luzea dagoela egiteko, baina euskal administrazio ugari norabide onean daudela, kontratazio publikoaren tresnaz baliatuta, gizarteratze-enpresak bultzatzeko bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako enplegu-politika aktibo gisa, eta horrek zero kostua du administrazioarentzat. Estrategia horrek garrantzi berezia hartzen du COVID-19ak sortutako osasun-larrialdiko testuinguruan, eta larrialdi-egoeraren ondoriozko ekonomia- eta enplegu-krisiak aurreikusten dira. Krisi horrek, beste behin ere, inpaktu handiagoa izango du pertsona zaurgarriengana, eta haiekin lan egiten dute gizarteratze-enpresek.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da, beraz, lankidetzaren publiko-soziala eta kontratazio publiko arduratsua eta kontratu erreserbatuak dakarten politika publikoen koherentzia bultzatzen jarraitzea. **Gizatea**-tik, euskal administrazio publiko guztiak animatzen ditugu bat egitera, oraindik egin ez badute, eta haien esanetara jartzen gara, egoki eta beharrezko irizten dioten guztian laguntzeko.

## 2019an, Gizateari lotutako laneratze- enpresen zerrenda

Izen soziala	Jarduera sektorea	Telefonoa	Lurraldea
Alkar Biziz, S.L.	Etxez-etxe laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak.	944 155 723	Bizkaia
Amayadigital, S.L.U.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak.	945 265 480	Araba
Beraiki99, S.L. <sup>7</sup>	Eraikuntza eta berrikuntzak.	945 108 130	Araba
Berezi 99 Garbiketak- Lorezaintza, S.L.	Komunitate, enpresa eta merkataritza- lokalen garbiketa, mantentzea eta laguntza zerbitzuak.	945 108 130	Araba
Berjantzi, S.Coop.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena.	944 523 374	Araba
Berziklatu, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena.	946 640 082	Bizkaia
Bidebarri Enplegu Zentrua, S.L.	Elikagaien banaketa.	943 716 479	Gipuzkoa
Ekozan, S.L.	Elikagai ekologikoen banaketa.	944 027 841	Bizkaia
Emaús Gipuzkoa, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea.	902 455 855	Gipuzkoa
Emaús Comercio Justo, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak.	943 367 534	Gipuzkoa
Emaús Dendak, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea.	944 168 896	Bizkaia
Emaús Movilidad Sostenible, S.L.	Garraio jasangarria.	944 168 896	Bizkaia
Emaús Nekazaritza, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak.	944 168 896	Bizkaia
Emaús Servicios Medioambientales, S.L.U.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena / Etxe-aldaketa garraioa / Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea.	944 168 896	Bizkaia
Eskuz Esku, S.L.	Artisautza, zura, metala.		Bizkaia
Euskal Postalred, S.L.	Mezularitza, garraioa eta paketeria.	944 128 843	Bizkaia
Euskarri, Koop. E. De Iniciativa Social	Lagun-egite soziala eta laguntza-zerbitzuak menpekoak diren pertsonentzat.	944 795 170	Bizkaia
Garbinguru Servicios Medioambientales, S.L.U.	Lorezaintza, baratzezaintza, ingurumeneko zerbitzuak eta basoko lanak.	945 120 109	Araba
Goilurra, S.L.	Elikagaien banaketa / Etxez-etxe laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak.	944 780 541	Bizkaia
Hazlan Irun, S.L.	Etxez-etxe laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak. Josketa tailerra.	943 610 610	Gipuzkoa

7 2019an kanporatua.

Izen soziala	Jarduera sektorea	Telefonoa	Lurraldea
Ikatzbizi, S.L.	Etkez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsonen laguntza zerbitzuak.	945 244 226	Araba
Iturritek, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak.	944 700 704	Bizkaia
Izarza, S.L.	Ostalaritza.	944 538 273	Bizkaia
Jantziprest, S.L.U.	Garbitze- eta tindatze-lanak.	685 753 740	Bizkaia
Keima Animazioa, S.L.U.	Aisialdi jarduerak.	944 792 255	Bizkaia
Kide Emaus, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena.	945 250 345	Araba
Koopera Servicios Ambientales, S.Coop.I.S.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena.	944 523 374	Bizkaia
Kupelan Kentucky, S.Coop.	Ostalaritza.	946 071 962	Bizkaia
Laiatzen, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak.	944 700 704	Gipuzkoa
Lanbide Bizia, S.L. <sup>8</sup>	Industriarako laguntza-zerbitzuak.	944 545 043	Bizkaia
Lanerain, S.L. <sup>9</sup>	Eraikinen birgaikuntza, eraikuntza eta eraberritzeak.	943 820 110	Gipuzkoa
Lapiko Catering, S.L.	Ostalaritza.	688 679 545	Bizkaia
Liburki, S.L.L.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak.	944 462 279	Bizkaia
Badia Berri, S.A. (Iehen Oarsotek S.L.)	Industriarako laguntza-zerbitzuak.	943 494 129	Gipuzkoa
Pormu Koop. Elk. Txikia	Mekanika.	664 267 778	Bizkaia
Servicios de Hostelería Peñascal, S.L.	Ostalaritza.	944 700 704	Bizkaia
Sokaire Servicios de Limpieza, S.L.U.	Garbiketa.	944 167 904	Bizkaia
Sukalbide, S.L. <sup>10</sup>	Jatetxe eta catering zerbitzuak.	943 676 161	Gipuzkoa
Suspertu, S.L.	Ostalaritza.	944 008 060	Bizkaia
Tinko Garbiketak, S.L.	Garbiketa.	945 235 574	Araba
Urbegi Inserción, S.L.	Industria-zerbitzu osagarriak	946 801 934	Bizkaia
Zabaltegi Judimendi, S.L.U.	Ostalaritza.	945 251 840	Araba
Zurtek, S.I.	Eraikuntza eta berrikuntzak.	944 700 704	Bizkaia

<sup>8</sup> 2019an, GLE gisa kalifikatua.

<sup>9</sup> 2019an, GLE gisa kalifikatua.

<sup>10</sup> 2018an, GLE gisa kalifikatua.